2020ko uztailak 29



*Your Way*
TO FUTURE MOBILITY

# 2020KO **LEHEN SEIHILEKOKO** EMAITZAK

# AURKIBIDEA


- 00 COVID-19AREN KUDEAKETA CAF-EN 03
- 00 COVID-19AREN ERAGINA CAF-EKO JARDUERETAN 07
- 01 MAGNITUDE NAGUSIAK 08
- 02 KONTRATAZIOA 09
- 03 ESKARIEN ZORROA 10
- 04 EMAITZA KONTU BATERATUA 11
- 05 EGOERA BALANTZE BATERATUA 13
- 06 BURTSAKO INFORMAZIOA 16
- 07 AURREIKUSPENAK 17
- 08 ERANSKINAK 18




# 00/ COVID-19AREN KUDEAKETA CAF-EN

## Aurrea hartzea eta larrialdiaren **Berehalako kudeaketa**

***Langileen osasuna eta segurtasuna*** *dira lehentasunak*



## Negozioan **Eragina minimizatzeko** Plan orokorra

***Proiektuen exekuzioa eta akziodunentzako balioa*** *babestea*



## **Epe ertaineko erronkei** erantzun eraginkorra emateko plangintza

***Etorkizunean izan daitezkeen egoerei arintasunez erantzuteko*** *kontingentzia-planak ezarrita*

<>

***Covid-19 irtenbideen*** *katalogoa*



**Aurrea hartzea eta larrialdiaren**
**Berehalako kudeaketa**

Negozioan
Eragina minimizatzeko
Plan orokorra

Epe ertaineko erronkei
erantzun eraginkorra emateko plangintza

## *Langileen osasuna eta segurtasuna dira lehentasunak*

- Osasun-krisirako ezarritako **kontingentzia-planak** berehala zabaltzea.
- Taldeko negozio desberdinetako egoerari egukitutako **jarduketa-protokoloak** martxan jartzea.
- **Maila goreneko Krisi Batzordea** aktibatzea, baita beste **batzorde operatibo** batzuk ere protokoloa eta martxan jarritako neurriak zabaltzeko eta jarraipena egiteko.

### Taldearen jarduera eta negozioen espezifikotasunetara egokitutako laneko neurriak

- **Egoitzetan fabrikazio-jarduerak aldi baterako gelditzea**, tokiko osasun-agintariek emandako neurrien arabera.
- Garraio-sistemen **mantentze-lanetako zerbitzu eta operazioari** dagokienez, protokoloak eta eusteko nahiz prebentzioko neurriak ezartzea.
- Aurrez aurrekoak ez diren jarduerekin jarraitzeko **telelanaren modalitatea** ezartzea.

### Taldeko negozio guztiek partekatutako ekintzak ezartzea

- Osasun-krisiaren egoerari, protokoloei eta prebentzio-neurri orokor nahiz espezifikoei buruz **urruneko prestakuntza eta zuzeneko informazioa ematea** langileei.
- **Erakundea egokitzeko** ekimenak garatzea (txanda osagarriak ezartzea, talde egonkorrak, sarrera mailakatuak...) kutsatzeko arriskua arintzeko eta langileen osasuna bermatzeko.
- **Malgutasun-neurriak**, geografia eta jarduera mota bakoitzera egokituta, eta egutegi nahiz lanaldiak aldatzea, jarduerak aldi baterako etetea...

# 00/ COVID-19AREN KUDEAKETA CAF-EN

| Aurrea hartzea eta larrialdiaren **Berehalako kudeaketa** | Negozioan **Eragina minimizatzeko** Plan orokorra | Epe ertaineko erronkei **erantzun eraginkorra emateko** plangintza |
|---|---|---|

## ***Proiektuen exekuzioa eta akziodunentzako balioa*** *babestea*

Hornidura eta Gaitasunak



Bezeroak — Altxortegia

| | |
|---|---|
| **Hornidura eta Gaitasunak** | • Hornidura-katea eta beharrezko produkzio-gaitasunak mantentzea |
| **Bezeroak** | • Bezeroekin oso gertuko kudeaketa |
| **Altxortegia** | • Finantzaketa-gaitasuna indartzea<br>• Finantza arloko eragina mugatzea<br>• Operazio edo eragiketen optimizazioa<br>• Kritikoak ez diren inbertsioak atzeratzea<br>• Arautu gabeko gastua murriztea |



Aurrea hartzea eta larrialdiaren
**Berehalako kudeaketa**

Negozioan
**Eragina minimizatzeko**
Plan orokorra

Epe ertaineko erronkei
**erantzun eraginkorra emateko plangintza**

***Etorkizunean izan daitezkeen egoerei arintasunez erantzuteko*** *kontingentzia-planak ezarrita*

<>

***Covid-19 irtenbideen*** *katalogoa*




- ✓ **Kontaktu bidezko transmisioa** saihesteko irtenbideak
- ✓ **Aire bidezko transmisioa** saihesteko irtenbideak
- ✓ **Aforoak** kontrolatzea/Bidaiariak kontrolatzea denbora errealean

**PRESS RELEASE** SOLARIS

**Safe public transport. Solaris presents its offer of antiviral solutions for all newly produced buses and those already in use**

Bolechowo, 09.07.2020







*Bidaiarien eta operadoreen segurtasuna*

# 00/ COVID-19AREN ERAGINA CAF-EKO JARDUERETAN

## *Negozioen bilakaera*

**Tren-ibilgailuak**

- **Fabrikazio-jarduerak gelditu** egin ziren Espainian martxoaren 16tik apirilaren 8ra. Jarduera-gabeziaren magnitudea eta iraupena herrialde bakoitzaren egoeraren araberakoa da. *Erabateko geldialdia: 3-4 aste.*
- **Laneko malgutasun-akordioa** lantegi nagusietan (Espainia) geldititutako egunak urtearen bigarren seihilekoan berreskuratzeko.
- Tailerreko jarduerak **berriz abiatu** ziren Espainian apirilaren 20an.
- **Proiektuak berriz programatu** ziren, bezero, hornitzaile eta langileekin koordinatuta.
- **Jarduerarik gabeko egunak berreskuratzen** hasi ziren 2020ko maiatzean.

**Autobusak**

- Produkzio-jarduerak **jarraitu egin zuen.** *Geldialdiko 0 egun.*
- Covid-19ak bereziki eragindako eremuetan autobusak entregatzeko garaian **moteltze arina** izan zen.

**Zerbitzuak**

- Operadoreek tren-garraioa murriztu zuten, eta horrek **eragina** izan zuen eskatutako berme eta mantentze-lanen **zerbitzuetan**.
- Fakturazioan izango duen eragina **kontratu bakoitzeko baldintzen araberakoa** izango da (disponibilitatea/km/zereginak, ordainketa mistoa eta abar kontuan hartuta).
- **Enplegua erregulatzeko aldi baterako espedienteak** jarri dituzte Euromainten eta Actrenen, mantentze-lanetako kontratuen irismena murriztu delako.
- **Ordezkoen** horniduran jarduera txikiagoa da.
- Brasileko eta Mexikoko kontzesioen kaxako fluxuak zehaztuta, bidaiarien eskari-jaitsieraren araberako **aldakortasunik gabe**.

**Osagaiak, Ekipoak, Seinaleztapena, Sistemak eta Bestelakoak**

- **Aurrez aurreko jarduerak gelditutа** (seinaleztapenak instalatzea, fabrikako eta osagaien hornidurako jarduerak, landako entseguak eta abar).

## *Egungo egoera*

**Produkzio-jardueraren normalizatzea**

Fabrikazio-jarduera **produkzio-gaitasunaren % 100ean.**

Indarrean jarraitzen dute **antolaketa mailako eta prebentzioko neurriek** (txanda gehiago, sarrera mailakatuak eta abar).

**Fabrikazio-proiektuen exekuzioa Bezeroekin adostutako plangintza berriaren arabera**

**Espainian fabrikazio-negozioan jarduerarik gabeko egunak berreskuratzen hasi ziren maiatzean**

Berreskuratzeak larunbatetan, jaiegunetan eta lanegunetan (lanaldia luzatuta) berreskuratze-egutegiaren arabera, 2020 amaierara arte.

**Zerbitzuen jarduera pixkanaka nabarmen berreskuratu da**

**> mantendutako floten % 50 hirikoak / hiri artekoak dira**

Zirkulazio-berreskuratzea **azkarragoa**

Exekutatzen ari diren mantentze-lanetako 50 proiektu baino gehiagotatik:

| Martxoak 27 | Uztailak 14 | |
|---|---|---|
| % 21 | % 60 | % 84 |
| zirkulazioa >% 90 | zirkulazioa >% 90 | zirkulazioa >% 70 |

# 01/ MAGNITUDE NAGUSIAK

| Kontratazioa | Eskarien zorroa | Salmentak | EBITDA Marjina |
|---|---|---|---|
| **599 M€** | **8.928 M€** | **1.117 M€** | **% 6,5** |

| Finantza-zor garbia | FZG/EBITDA |
|---|---|
| **451 M€** | **2,3** |



# 02/ KONTRATAZIOA

## Autobusen negozioak ekarpen nabarmena egin du aldiko kontratazioan
## Tren arloko negozioan zenbait kontratu-zabaltze sinatu dira

*(milioi eurotan)*

| | 2017 1HH-4HH | 2018 1HH-4HH | 2019 1HH-4HH | 2020 1HH-2HH [1] GUZTIRA | Trenak | Autobusak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kontratazioa | 1.514 | 2.902 | 4.066 | 599 | 294 | 305 |
| *book-to-bill* | *1,0* | *1,4* | *1,6* | *0,5* | *0,3* | *1,3* |

Lehen hiruhileko kontratazioez gain (ikus A eranskina), honako hauek izan dira 2020ko bigarren hiruhilekoan zehar sinatutako eta eskarien zorroan sartutako kontratu nagusiak:

**2020ko 2.HHko kontratazioa** [1]

Iragarritako proiektuak


Napoles (Italia)


Stockholm (Suedia)


Amsterdam (Herbehereak)

+

Beste kontratu eta doiketa batzuk

- Ibilgailu-horniketako kontratuak, neurri txikikoak
- Autobus, Osagai, Ekipo, Sistema eta Bestelakoen kontratuak
- Zorroaren doiketak (kontratuen irismen-aldakuntzak eta bihurketa-doiketak)

[1] Ekitaldian irmotzat jotako eskariak zein aurreko ekitaldietako eskarietan gertatu diren aldaketak jasotzen ditu, eta honela lortzen da: (Aldiaren amaierako eskarien zorroa – Aldiaren hasierako eskarien zorroa + Negozio-zifraren zenbateko garbia).
Kontratazioak ez ditu jasotzen sinatutako eta zorroan dauden proiektu batzuetan aurrez ikusitako aukerak.
2020ko 2. hiruhilekoko kontratazioaren xehetasuna ***A Eranskinean*** dago jasota.

# 03/ ESKARIEN ZORROA

## Ez da kontratu-baliogabetzerik izan bezeroekin
## Eskari-zorro handiak jarraitzen du bermatzen epe ertaineko jarduera




- Eskari-zorroaren zifrak ez du jasotzen Renferentzat zabalera metrikoko 37 unitate hornitzeko 2020ko ekainaren 29ko kontratuaren esleipena.

[1] 2019an eta 2020ko 1. seihilekoan, Taldearen 2019ko salmenten eta EuroMainten 2019 urte osokoaren (148 M€) gainean kalkulatuta.

# 04/ EMAITZA KONTU BATERATUA

## > Salmentak

Covid-19aren eragina orokorra da Taldearen salmentetan, neurri batean berreskura liteke urtearen bigarren seihilekoan, eta hazkunde-zikloari jarraipena emateko aukera izango da hala.

Taldearen **jarduerak erabat edo neurri batean geldiarazteak** urtearen lehen seihilekoko salmentak murriztu ditu

**Salmentak, guztira (M€)**




| | Salmentak (M€) 2019ko 1.SH | Salmentak (M€) 2020ko 1.SH | Urte arteko hazkundea | Inpaktua |
|---|---|---|---|---|
| **Tren-ibilgailuak** | 673 | 507 | -% 25 2019ko1.SHre kiko | (-) Produkzio-jarduera erabat edo zati batean geldiarazteagatik jardueran izandako murrizketa |
| **Zerbitzuak** | 184 | 252 | +% 37 2019ko1.SHre kiko | (+) Euromainten ekarpena<br>(-) Operadoreei emandako zerbituen jaitsiera, bereziki 2. HHn |
| **Osagaiak, Ekipoak, Seinaleztapena, Sistemak eta Bestelakoak** | 145 | 130 | -% 10 2019ko1.SHre kiko | (-) Jarduera erabat edo zati batean geldiaraztea |

[1] EuroMainten salmenten 71M€ biltzen ditu.

## Covid-19ak emaitza ere estutzen du

**Aldi baterako eragina** izango da emaitzan; izan ere, fabrikazio-jarduerak geldiarazteagatik sortutako eraginkortasunik gabekoen zati bat berreskuratzea aurrez ikusi dute, eta floten operadoreek pixkanaka jarduera maila normalak berreskuratuko dituzte, nahiz eta ziurgabetasun handia dagoen datozen hilabeteetan pandemiak izango dituen ondorioen inguruan.



# 05/ EGOERA BALANTZE BATERATUA

## > Zirkulatzailea

Covid-19aren krisian zirkulatzailearen kudeaketak ahalbidetu du **lehendik maila baxuan zegoen Taldearen zirkulatzaile garbia murriztea**

**Zirkulatzaile garbia (M€)**







[1] Balantzeko kontu-sail hauek biltzen ditu:
- "Beste zordun batzuk": Beste zordun batzuk, zerga korrontearekin lotutako aktiboak, aktibo korronteko deribatuak eta beste aktibo korronte batzuk.
- "Beste hartzekodun batzuk": Hornidura korronteak, Bezeroen aurrerakinik gabeko beste hartzekodun batzuk, Zerga korronteengatiko pasiboak, pasibo korronteko deribatuak, eta erakunde publikoekin ordainketen atzerapenak salbu.

# 05/ EGOERA BALANTZE BATERATUA

## > Finantza-zor garbia

CAF Taldeak urtearen bigarren seihilekoa finantza-posizio sendoarekin hasi du

**FZG/EBITDA ratioa** pixka bat handitu da, 2020ko 1. seihilekoko emaitza txikiagoa dela eta.




Taldearen **likidezia mailako posizioa indartu egin da** pandemian.



# 05/ EGOERA BALANTZE BATERATUA
## > Finantza-zor garbia

*(jarraipena)*

### Aldeko zirkulatzaileak eta bihurketa-aldeek eutsi diote Taldearen Finantza Zor Garbiari

*(milioi eurotan)*




[1] Dibisen bihurketa-eraginak kontuan hartu gabe kapital korrontean izandako aldaketak.

# 06/ BURTSAKO INFORMAZIOA




| Akzioen egitura | 2019/12/31 |
|---|---|




| Burtsako informazioa | 2020 (06/30 arte) |
|---|---|
| Burtsako kapitalizazioa (eurotan) | 1.107.268.225 |
| Akzio kop. | 34.280.750 |
| Azken kotizazio-prezioa (eurotan) | 32,3 |
| Gehieneko kotizazio-prezioa (eurotan) | 43,3 |
| Gutxieneko kotizazio-prezioa (eurotan) | 25,2 |
| Negoziatutako bolumena (milaka akzio) | 6.347 |
| Negoziatutako eskudirua (milaka euro) | 220.135 |

[1] % 3 baino gehiagoko partaidetza edo, paradisu fiskaletan egoitza duten inbertsiogileen kasuan, % 1eko partaidetza duten inbertsiogileak biltzen ditu.

# 07/ AURREIKUSPENAK




*Egungo testuingurua konplexua izan arren,*

***CAF Taldeak berreskuratu eta azken ekitaldietan izan duen salmenta eta irabazien hazkunde-zikloari jarraipena eman ahal izango diola espero du***

*merkatuaren aldeko joeretan oinarrituta:*

- ✓ Tren bidezko garraioaren eta hiriko mugikortasunaren sektoreak berreskuratzeko aurreikuspena
- ✓ Hiriko elektromugikortasunaren garapen etengabea
- ✓ Tren-garraioak oro har berezkoa duen iraunkortasuna
- ✓ Agintariek mugikortasun jasangarriaren alde egindako apustu irmoa, orain gutxi Europako Berreraikuntza Planaren testuinguruan iragarritako "*European Green Deal*"en bidez bultzatuta.

*Eta CAF Taldearen aurreikuspenetan oinarrituta:*

- ✓ Talde mailan zorro handia
- ✓ Abian diren eraldaketako eta eraginkortasuneko ekimenen ondoriozko jarduera-ildo berrien garapena

*Era berean, beharrezko ziurgabetasuna izan arren, egungo estimazioen arabera, eta Taldeak lan egiten duen herrialdeetan pandemiak gaur egun dituen baldintzak oinarri hartuta,*

***bigarren seihilekoan EBITDA normalizatuko mailak berreskuratuko lirateke***

# 8/ ERANSKINAK

A/ 2020ko 1.SHko kontratazio xehetasunak

B/ Egoera-balantze bateratua

C/ Emaitza-kontu bateratua

# A/ 2020KO 1.SH-KO KONTRATAZIO XEHETASUNAK

2020ko 1.SHn eskari-zorroan sartutako eta iragarritako kontratuak

| Data | Proiektua | Herrialdea | Deskribapena | Bezeroa | Mota | Aukera osagarriak | Negozioa: Ibilgailuak | | | Negozioa: Gainerako negozioak | | | | Zenbatekoa (M€) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | # unit. | Plataforma | | Negozioa | Irismena | Ezaugarriak | |
| 1.HH | Helsinki | Finlandia | Metroen hornidura | Ez berria | Luzapena | Ez | ✔ | 5 | - | | | | | |
| 1.HH | VY | Norvegia | Eskualdeko unitateen mantentze-lana | Berria | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Zerbitzuak | Eskualdeko unitateen mantentze-lana | 9 urte | > 100 |
| 1.HH | Bartzelona | Espainia | Autobusen hornidura | Ez berria | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Hiri-autobus elektrikoen hornidura | 14 autobus | |
| 1.HH | Wuppertal eta Kolonia | Alemania | Autobusen hornidura | Ez berria | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Hidrogeno bidezko hiri-autobusen hornidura | 25 autobus | c.25 |
| 1.HH | Connexxion | Herbehereak | Autobusen hornidura | Ez berria | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Hidrogeno bidezko hiri-autobusen hornidura | 20 autobus | |
| 2.HH | Napoles | Italia | Metroen hornidura | Ez berria | Luzapena | Bai | ✔ | 4 | - | ✔ | Zerbitzuak | Metro-unitateen mantentze-lana | 3 urte | |
| 2.HH | Stockholm | Suedia | Tranbien hornidura | Ez berria | Luzapena | Bai | ✔ | 10 | Urbos | | | | | c.25 |
| 2.HH | Amsterdam | Holanda | Tranbien hornidura | Ez berria | Luzapena | Bai | ✔ | 9 | Urbos | | | | | |

# B/ EGOERA-BALANTZE BATERATUA

*(milioi eurotan)*

| Egoera-balantzea | 2020/6/30 | 2019/12/31 | Aldak. % |
|---|---|---|---|
| **Aktiboa** | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 334 | 348 | (% 4) |
| Ibilgetu materiala | 417 | 449 | (% 7) |
| Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak | (1) | 8 | (% 107) |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 472 | 539 | (% 12) |
| Estaldura ez-korronteko deribatuak | 17 | 45 | (% 62) |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 147 | 146 | % 1 |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 6 | 7 | (% 16) |
| **Aktibo ez-korronteak** | **1.392** | **1.542** | **(% 10)** |
| Izakinak | 671 | 488 | (% 38) |
| Bezeroak, salmenten eta zerbitzuen prestazioaren arabera | 1.315 | 1.372 | (% 4) |
| Beste zordun batzuk | 173 | 217 | (% 20) |
| Zerga korrontearen ondoriozko aktiboak | 14 | 12 | % 12 |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk | 99 | 96 | % 4 |
| Estaldura korronteko deribatuak | 17 | 40 | (% 57) |
| Beste aktibo korronte batzuk | 28 | 17 | % 61 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 674 | 539 | % 25 |
| **Aktibo korronteak** | **2.991** | **2.781** | **% 8** |
| **Aktiboa, guztira** | **4.383** | **4.323** | **% 1** |
| **Pasiboa eta ondare garbia** | | | |
| **Ondare garbia** | **615** | **745** | **(% 17)** |
| Hornidura ez-korronteak | 38 | 48 | (% 21) |
| Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak | 931 | 868 | % 7 |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronte | 88 | 91 | (% 3) |
| Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak | 141 | 159 | (% 12) |
| Estaldura ez-korronteko deribatuak | 16 | 46 | (% 65) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 83 | 87 | (% 4) |
| **Pasibo ez-korrontea** | **1.297** | **1.299** | **% 0** |
| Hornidura korronteak | 228 | 238 | (% 4) |
| Kreditu-erakundeekiko zor korronteak | 278 | 200 | % 39 |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronte | 58 | 44 | % 32 |
| Estaldura korronteko deribatuak | 32 | 61 | (% 47) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.871 | 1.729 | % 8 |
| Beste pasibo korronte batzuk | 4 | 7 | (% 41) |
| **Pasibo korronteak** | **2.471** | **2.279** | **% 8** |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **4.383** | **4.323** | **% 1** |

### Ibilgetu ukiezina

Saldoak honako hauek biltzen ditu: Merkataritza Funtsa, 104 milioi euroko zenbatekoarekin; merkataritza-harremanak; bezero-zorroak eta markak, 137 milioi euroko zenbatekoarekin. Azken horiek BWB, Solaris, Rifer eta EuroMaint erostetik sortutakoak dira.

### Ibilgetu materiala

Ibilgetuko inbertsioetan izandako eusteak, eta bestalde, kanbio-tasaren eraginak (14 M€) % 7 murriztu dute partida hau.

# B/ EGOERA-BALANTZE BATERATUA

*(milioi eurotan)*

| Egoera-balantzea | 2020/06/30 | 2019/12/31 | Aldak. % |
|---|---|---|---|
| **Aktiboa** | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 334 | 348 | (% 4) |
| Ibilgetu materiala | 417 | 449 | (% 7) |
| Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak | (1) | 8 | (% 107) |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 472 | 539 | (% 12) |
| Estaldura ez-korronteko deribatuak | 17 | 45 | (% 62) |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 147 | 146 | % 1 |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 6 | 7 | (% 16) |
| **Aktibo ez-korronteak** | **1.392** | **1.542** | **(% 10)** |
| Izakinak | 671 | 488 | (% 38) |
| Bezeroak, salmenten eta zerbitzuen prestazioaren arabera | 1.315 | 1.372 | (% 4) |
| Beste zordun batzuk | 173 | 217 | (% 20) |
| Zerga korrontearen ondoriozko aktiboak | 14 | 12 | % 12 |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk | 99 | 96 | % 4 |
| Estaldura korronteko deribatuak | 17 | 40 | (% 57) |
| Beste aktibo korronte batzuk | 28 | 17 | % 61 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 674 | 539 | % 25 |
| **Aktibo korronteak** | **2.991** | **2.781** | **% 8** |
| **Aktiboa, guztira** | **4.383** | **4.323** | **% 1** |
| **Pasiboa eta ondare garbia** | | | |
| **Ondare garbia** | **615** | **745** | **(% 17)** |
| Hornidura ez-korronteak | 38 | 48 | (% 21) |
| Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak | 931 | 868 | % 7 |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronte | 88 | 91 | (% 3) |
| Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak | 141 | 159 | (% 12) |
| Estaldura ez-korronteko deribatuak | 16 | 46 | (% 65) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 83 | 87 | (% 4) |
| **Pasibo ez-korrontea** | **1.297** | **1.299** | **% 0** |
| Hornidura korronteak | 228 | 238 | (% 4) |
| Kreditu-erakundeekiko zor korronteak | 278 | 200 | % 39 |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronte | 58 | 44 | % 32 |
| Estaldura korronteko deribatuak | 32 | 61 | (% 47) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.871 | 1.729 | % 8 |
| Beste pasibo korronte batzuk | 4 | 7 | (% 41) |
| **Pasibo korronteak** | **2.471** | **2.279** | **% 8** |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **4.383** | **4.323** | **% 1** |

*(jarraipena)*

### Finantza-aktibo ez-korronteak

Batez ere, Brasilgo eta Mexikoko kontzesioko-kontratuei lotutako aktiboak dira. Jaitsiera batez ere bihurketa-aldeen eraginez azal daiteke.

### Aktibo korronteak

Izakinen kontua handitu egin da, batez ere, 2020ko bigarren seihilekorako espero diren salmentetarako autobusen proiektuetan izandako kostuen eraginez.

Epe laburrerako beste zordun batzuen kontuan, Brasilgo eta Mexikoko kontsezioetatik epe laburrean kobratu beharreko zatia erregistratu da.

Diru eta beste aktibo likido batzuen kontuan izandako igoera COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean taldearen likidezia arloko posizioa indartzeko egindako ekintzen ondorioa da.

# B/ EGOERA-BALANTZE BATERATUA

*(milioi eurotan)*

| Egoera-balantzea | 2020/06/30 | 2019/12/31 | Aldak. % |
|---|---|---|---|
| **Aktiboa** | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 334 | 348 | (% 4) |
| Ibilgetu materiala | 417 | 449 | (% 7) |
| Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak | (1) | 8 | (% 107) |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 472 | 539 | (% 12) |
| Estaldura ez-korronteko deribatuak | 17 | 45 | (% 62) |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 147 | 146 | % 1 |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 6 | 7 | (% 16) |
| **Aktibo ez-korronteak** | **1.392** | **1.542** | **(% 10)** |
| Izakinak | 671 | 488 | (% 38) |
| Bezeroak, salmenten eta zerbitzuen prestazioaren arabera | 1.315 | 1.372 | (% 4) |
| Beste zordun batzuk | 173 | 217 | (% 20) |
| Zerga korrontearen ondoriozko aktiboak | 14 | 12 | % 12 |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk | 99 | 96 | % 4 |
| Estaldura korronteko deribatuak | 17 | 40 | (% 57) |
| Beste aktibo korronte batzuk | 28 | 17 | % 61 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 674 | 539 | % 25 |
| **Aktibo korronteak** | **2.991** | **2.781** | **% 8** |
| **Aktiboa, guztira** | **4.383** | **4.323** | **% 1** |
| **Pasiboa eta ondare garbia** | | | |
| **Ondare garbia** | **615** | **745** | **(% 17)** |
| Hornidura ez-korronteak | 38 | 48 | (% 21) |
| Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak | 931 | 868 | % 7 |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronte | 88 | 91 | (% 3) |
| Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak | 141 | 159 | (% 12) |
| Estaldura ez-korronteko deribatuak | 16 | 46 | (% 65) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 83 | 87 | (% 4) |
| **Pasibo ez-korrontea** | **1.297** | **1.299** | **% 0** |
| Hornidura korronteak | 228 | 238 | (% 4) |
| Kreditu-erakundeekiko zor korronteak | 278 | 200 | % 39 |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronte | 58 | 44 | % 32 |
| Estaldura korronteko deribatuak | 32 | 61 | (% 47) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.871 | 1.729 | % 8 |
| Beste pasibo korronte batzuk | 4 | 7 | (% 41) |
| **Pasibo korronteak** | **2.471** | **2.279** | **% 8** |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **4.383** | **4.323** | **% 1** |

*(jarraipena)*

## Ondare garbia

Ekitaldiko aldaketen oinarria, batez ere, bihurketa-aldeen aldakuntza, dibidenduen banaketa eta 2020ko lehen seihilekoaren emaitza negatiboa izan da.




## Pasibo ez-korrontea

Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteetan izandako igoeraren jatorria, batez ere, epe luzeko zorraren igoera izan da; izan ere, banku-zorra birfinantzatu da, Sozietate Nagusian eta Solarisen.

*(milioi eurotan)*

*(jarraipena)*

| Egoera-balantzea | 2020/6/30 | 2019/12/31 | Aldak. % |
|---|---|---|---|
| **Aktiboa** | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 334 | 348 | (% 4) |
| Ibilgetu materiala | 417 | 449 | (% 7) |
| Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak | (1) | 8 | (% 107) |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 472 | 539 | (% 12) |
| Estaldura ez-korronteko deribatuak | 17 | 45 | (% 62) |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 147 | 146 | % 1 |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 6 | 7 | (% 16) |
| **Aktibo ez-korronteak** | **1.392** | **1.542** | **(% 10)** |
| Izakinak | 671 | 488 | (% 38) |
| Bezeroak, salmenten eta zerbitzuen prestazioaren arabera | 1.315 | 1.372 | (% 4) |
| Beste zordun batzuk | 173 | 217 | (% 20) |
| Zerga korrontearen ondoriozko aktiboak | 14 | 12 | % 12 |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk | 99 | 96 | % 4 |
| Estaldura korronteko deribatuak | 17 | 40 | (% 57) |
| Beste aktibo korronte batzuk | 28 | 17 | % 61 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 674 | 539 | % 25 |
| **Aktibo korronteak** | **2.991** | **2.781** | **% 8** |
| **Aktiboa, guztira** | **4.383** | **4.323** | **% 1** |
| **Pasiboa eta ondare garbia** | | | |
| **Ondare garbia** | **615** | **745** | **(% 17)** |
| Hornidura ez-korronteak | 38 | 48 | (% 21) |
| Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak | 931 | 868 | % 7 |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronte | 88 | 91 | (% 3) |
| Zerga gerotatuaren ondoriozko pasiboak | 141 | 159 | (% 12) |
| Estaldura ez-korronteko deribatuak | 16 | 46 | (% 65) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 83 | 87 | (% 4) |
| **Pasibo ez-korrontea** | **1.297** | **1.299** | **% 0** |
| Hornidura korronteak | 228 | 238 | (% 4) |
| Kreditu-erakundeekiko zor korronteak | 278 | 200 | % 39 |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronte | 58 | 44 | % 32 |
| Estaldura korronteko deribatuak | 32 | 61 | (% 47) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.871 | 1.729 | % 8 |
| Beste pasibo korronte batzuk | 4 | 7 | (% 41) |
| **Pasibo korronteak** | **2.471** | **2.279** | **% 8** |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **4.383** | **4.323** | **% 1** |

## Pasibo korronteak

Kreditu-erakundeekiko zor korronteak handitu egin dira. Izan ere, COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean taldeak likidezia arloko posizioa indartzeko egin dituen ekintzen ondorioz Sozietate Nagusiak epe laburreko banku-zorra handitu du. Horrez gain, Solarisen epe laburreko zorra handitu egin da.

Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk handitu egin dira, batez ere Bezeroen Aurrerakinak handitu direlako, trenen diseinuari lotutako mugarri garrantzitsuak bete direlako.

Bezeroen aurrerakinak
*(milioi eurotan)*



# C/ EMAITZA-KONTU BATERATUA

*(milioi eurotan)*

| Emaitzen Kontua | 2020,1.SH | 2019, 1.SH | Aldak. % |
|---|---|---|---|
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 1.117 | 1.266 | (% 12) |
| Beste sarrera batzuk (*) | 11 | 16 | (% 32) |
| Hornidurak eta izakinen aldakuntza | (546) | (667) | %18 |
| Pertsonaleko gastuak | (344) | (314) | (% 10) |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | (165) | (185) | % 10 |
| Doitutako EBITDA | 73 | 116 | (%37) |
| Marjinaren % | % 6,5 | % 9,2 | - |
| Ibilgetuaren amortizazioa | (45) | (39) | (% 16) |
| Besterentzeagatiko emaitzak eta okerragotzeak | (0) | (0) | - |
| Doitutako EBIT | 28 | 77 | (% 64) |
| Marjinaren % | % 2,5 | % 6,1 | - |
| Partida ez-errepikakorrak | (0) | (39) | - |
| EBIT | 28 | 38 | - |
| Marjinaren % | % 2,5 | % 3,0 | - |
| Finantza-sarrerak | 3 | 6 | (% 51) |
| Finantza-gastuak | (24) | (36) | % 34 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | (28) | (4) | (% 694) |
| Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk (**) | (0) | (0) | - |
| Finantza arloko emaitza | (49) | (34) | (% 46) |
| Baloratutako erakundeen emaitza, partaidetza-metodoaren arabera | (1) | (1) | - |
| Zergen aurreko emaitza | (22) | 4 | - |
| Irabazien gaineko zerga | (13) | (17) | % 20 |
| Zergen ondorengo emaitza garbia, doituta | (35) | 25 | (% 240) |
| Marjinaren % | (% 3,1) | % 2,0 | - |
| Zergen ondoren, emaitza garbia | (35) | (13) | - |
| Marjinaren % | (% 3,1) | (% 1,0) | - |
| Interes minoritarioak | (0) | (1) | - |
| Sozietate nagusiari egotzitako emaitza Doitua | (35) | 25 | (% 240) |
| Sozietate nagusiari egotzitako emaitza | (35) | (13) | - |

(*) Ustiapeneko beste sarrera batzuk eta Enpresak bere aktiborako egindako lanak ataletan erregistratutako kontu-sailak biltzen ditu
(**) Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketan eta Finantza-tresnak besterentzeagatiko emaitza eta okerragotzeetan erregistratutako partidak biltzen ditu

Produkzio-lantegi nagusietan fabrikazio-jarduera gelditzea, operadoreei emandako zerbitzu-jaitsiera eta aurreko ekitaldiko seihileko berarekin alderatuta autobus gutxiago entregatzea izan dira **negozio-zifraren zenbateko garbiaren** % 12ko urte arteko jaitsiera eragin duten alderdi nagusiak. Ex-Solarisen negozio-zifra 889 milioi eurokoa da, 2019ko 1. seihilekoan baino % 11 txikiagoa.

Holandako NSrako Civity unitateak, Erresuma Batuko West Midlandserako Civitiy eskualdeko unitateak, New South Waleseko eskualdeko unitateak eta Bartzelonako metroko unitateak dira 2020ko lehen seihilekoan exekutatzeko proiektu nagusiak.

**Pertsonaleko gastuak** % 10 igo dira, batez ere, EuroMaint perimetrora txertatu delako.

*(jarraipena)*

*(milioi eurotan)*

| Emaitzen Kontua | 2020,1.SH | 2019, 1.SH | Aldak. % |
|---|---|---|---|
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 1.117 | 1.266 | (% 12) |
| Beste sarrera batzuk (*) | 11 | 16 | (% 32) |
| Hornidurak eta izakinen aldakuntza | (546) | (667) | %18 |
| Pertsonaleko gastuak | (344) | (314) | (% 10) |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | (165) | (185) | % 10 |
| Doitutako EBITDA | 73 | 116 | (%37) |
| Marjinaren % | % 6,5 | % 9,2 | - |
| Ibilgetuaren amortizazioa | (45) | (39) | (% 16) |
| Besterentzeagatiko emaitzak eta okerragotzeak | (0) | (0) | - |
| Doitutako EBIT | 28 | 77 | (% 64) |
| Marjinaren % | % 2,5 | % 6,1 | - |
| Partida ez-errepikakorrak | (0) | (39) | - |
| EBIT | 28 | 38 | - |
| Marjinaren % | % 2,5 | % 3,0 | - |
| Finantza-sarrerak | 3 | 6 | (% 51) |
| Finantza-gastuak | (24) | (36) | % 34 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | (28) | (4) | (% 694) |
| Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk (**) | (0) | (0) | - |
| Finantza arloko emaitza | (49) | (34) | (% 46) |
| Baloratutako erakundeen emaitza, partaidetza-metodoaren arabera | (1) | (1) | - |
| Zergen aurreko emaitza | (22) | 4 | - |
| Irabazien gaineko zerga | (13) | (17) | % 20 |
| Zergen ondorengo emaitza garbia, doituta | (35) | 25 | (% 240) |
| Marjinaren % | (% 3,1) | % 2,0 | - |
| Zergen ondoren, emaitza garbia | (35) | (13) | - |
| Marjinaren % | (% 3,1) | (% 1,0) | - |
| Interes minoritarioak | (0) | (1) | - |
| Sozietate nagusiari egotzitako emaitza Doitua | (35) | 25 | (% 240) |
| Sozietate nagusiari egotzitako emaitza | (35) | (13) | - |

(*) Ustiapeneko beste sarrera batzuk eta Enpresak bere aktiborako egindako lanak ataletan erregistratutako kontu-sailak biltzen ditu

(**) Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketan eta Finantza-tresnak besterentzeagatiko emaitza eta okerragotzeetan erregistratutako partidak biltzen ditu

Negozio guztien ekarpena kontuan hartuta, **doitutako EBITDA** % 37 murriztu da 2019ko ekitaldiko aldi berarekin alderatuta. Murrizketa hori funtsean Covid-19ak izandako eragina dela eta seihilekoaren jarduera txikiagoaren ondorioa izan da.

**Doitutako EBIT**, aldiz, 2019ko aldi berarekin alderatuta, % 64 txikiagoa da. Amortizazioen kontu-sailean izandako igoera EuroMaint perimetrora atxiki delako azal daiteke (7 M€).

**Finantza-emaitza** garbia -49 milioi eurokoa da. Hor jasota daude 28 milioi euroko zenbatekoa duten **kanbioko aldeen eragin negatiboa.**

**Zergen aurreko emaitza,** 2020ko ekainaren 30ean, -22 milioi eurokoa da. Aurrez azaldutako moduan, ekitaldian jarduera gutxiago izatea eta dibisaren eragina izan dira aurreko ekitaldiarekiko aldakuntza azaltzen duten faktore nagusietako bi.

Azkenik, **Zergen ondorengo emaitza garbia,** 2020ko ekainaren 30ean, -35 milioi eurokoa izan da.

# LEGE-OHARRA



Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitorpenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharrik hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun esklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAFek, haren filialek edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

Your Way
TO FUTURE MOBILITY

www.caf.net